

KLIMA ALDAKETA



EGOERA

1990 erreferentzia urte bezala hartuta (eta ez 2005 Jaurlaritzak egiten duen bezala) Berotegi Efektuko Gasen murrizketa %7,5-koa izan da 2014 urterarte. Kontutan izanik gure isuri mailak Alemania edo Frantziarekin konparatu ahal direla eta ez Espainiarekin, datu horiekin ez ditugu betetzen dagozkigun murrizketa kopuruak.

Arlo honetan, politika eta neurri eraginkorrak hartu ahal izateko, kontutan hartu behar dugu zeintzuk diren

isuri gehien sortarazten dituzten sektoreak: Energia (%32), Garraioak (%28) eta industria (%22), isurien %80 sortarazten dute eta Lehenengo sektorea, bizitegi eta zerbitzuen sektoreek %4. Beraz argi dago ze esparrutan eragin behar da isuri mailak murrizterako orduan. Etxeko bonbilla bat kontsumo baxuko beste batengatik aldatzea ondo dago, baina orohar energia kontsumoa murriztea eta eredu energetiko berriztagarria ezartzea askoz eraginkorragoa izango da.

HELBURUA

2030 urterako isurien %40ko murrizketa helburu nagusi bezala hartuta, hurrengo lau urtetan (206-2020) Berotegi Efektuko Gasen %20 murrizketa lortu behar dugu.

NEURRIAK

1 Klima aldaketa borrokatzeko legea. Betetzen ez diren planen formula gainditu behar dugu eta lotesleak diren neurriak zehaztu. Lege horren helburu nagusietariko bat zeharka eragina duten politikak klima aldaketaren borrokan lerrokatzea izango litzateke. Horretarako Jaurlaritzako sailen arteko batzordea eratuz.

Legean, urtero, arlo ezberdinetan neurtu behar diren isuriak murrizteko kopuru zehatzak ezartzeaz gain, klima aldaketan eraginak dituzten esparruetan; energian, kontsumo murrizketa eta berriztagarrien kopuru zehatzak ezarriko dira edota hondakinetan bilketa sailkatua eta birziklapen kopuru zehatzak ezarriko dira.



Karbono-gabetzea lortzea helburua duten neurriak eta plangintzak finantzatzeko funts bat eratuko da. Zerga arloan neurri zehatzak ezarriko dira, isuri gehien sortarazten dituzten esparruek ekarpen handiagoa eginez.